



OSALAN
Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO BAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

NOTA DE PRENSA

20.02.2014

OSALANEK, LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUNERAKO EUSKAL ERAKUNDEA, BILBOKO UDALAREN BIHOTZ-BIRIKETAKO BIZKORTZEAREN GAINEKO INFORMAZIO KANPAINAN AKTIBOKI PARTE HARTZEN DU.

Osalaneko Zuzendari Nagusiak, Izaskun Urienek, Bilboko Udalak martxan jarriko duen (BBB) "Bihotz-Biriketako Bizkortze"ren gaineko Informazio Kanpainaren aurkezpenean parte hartu du. OSALANEk, Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, ekimen honetan parte hartzen du lan eremuan BBBko trebakuntzan duen esperientzian oinarrituta.

OSALANEk, bere jarduera eremutik, laneko osasuna zainduz, orain bi urte, Osakidetzarekin batera, prebentzio zerbitzuetako profesionaleei zuzendutako trebakuntza programa garatu zuen. Bihotz-Biriketako Bizkortzearen Munduko Kongresua ospatuko da laster Bilbon eta hau kontutan hartuta, Osalanek arrisku egoera baten aurrean erantzuteko oinarritzko jokabide neurriak herritarrei hurbiltzeko helburuarekin bat egiten du baita honen garrantzia baloratu ere, bihotz-biriketako bizkortzearen bitartez "biziak salbatzeko".

Informazio kanpaina honek, herritarrei heltzea du asmoa, bihotz-biriketako bizkortzearen garrantziaz ohartarazteko, "hil edo biziko" gaia delako, eta profesional taldeei eskeinitako trebakuntzaren hezkuntza eta kontzientziazio lan osagarria da. Ekimenak emergentzia egoeren aurrean erantzuteko gaitasun maila indartuko du. Izan ere, herritarrei zuzenduta dago, emergentzia egoeretan Bihotz-Biriketako Bizkortze teknika ezagutzen duen herritar anonimoen laguntasuna bizi bat salbatzeko erabakigarria izan daiteke eta.

Herritarrak, lan kolektiboaren parte izan ahal dira, eta beraz, hauek kanpaina honen bitartez har ditzaketen Bihotz-Biriketako Bizkortze



NOTA DE PRENSA

gaitasunak hil edo bizikoak izan daitezke lan eremuan gertatu daitekeen emergentzia batean.

BBBko teknikak herritarrei irakasteko metodologia Bilboko kaleetan zehar ibiliko den Osasun Postu baten bitartez, emergentzia kasuetan erantzuteko beharrianaren gainean kontzientziazteko modu bat da. Trebakuntza honekin ikasitako jarraibideak, emergentzia kasuetan erantzuteko baliogarriak dira, bihotz gaixotasunak eragindako bat-bateko heriotza baten aurrean, burmuin-baskular istripuak, elektrokuzio, urperatze itotasuna, drogen edo gasen intoxikazioen aurrean, besteak beste.

Osalaneko Zuzendari Nagusiak, Izaskun Urienek, honako hau nabarmendu du: *"pozik gaude Bilboko Udalarekin batera kanpaina honetan partehartzearekin, herritarrak kontzientziazteko ekimenean, hain zuzen. Bihotz-Biriketako Bizkortzearen Munduko Kongresua hartuko du Bilbok eta bertan parte hartzea ere aurreikusten dugu. Beharrezkoa da herritarrei gai hau hurbiltzea. Izan ere, lan kolektiboaren kidea izan ahal da eta arrisku egoeren aurrean erantzuteko gai izatea garrantzitsua da. Istripu edo arrisku emergentzia baten aurrean bihotz-biriketako bizkortze teknikak erabiliz danok lagundu ahal dugula ezagutzea hil edo bizikoa da. Bizkortze maniobra bat eginez bizi bat salbatzea geure esku dagoela jakitea. Kalean, metroan eta nola ez, lanean ere, bizkortze teknikak ezagutzea oso lagungarria da, medikuak etorri arte hain baliogarria den denbora "estra" hori irabazteko".*



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y
Salud Laborales



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

NOTA DE PRENSA

Osasun Postuaren kokalekuak eta datak:

otsailak 22, San Pedro Plaza, Deustu (11:00h. a 14:00h)

martxoak 8, Etxebarria Parkea, Begoña (11:00h. a 14:00h)

martxoak 22, Otxarkoaga Plaza (11:00h. a 14:00h)

apirilak 5, Errekalde Plaza (11:00h. a 14:00h)

apirilak 12 Aita Donostia Plaza, Basurto (11:00h. a 14:00h)

maiatzak 5, Plaza Berria, Alde Zaharra (11:00h. a 14:00h)

maiatzak 10, Indautxu Plaza, Abando (11:00h. a 14:00h)